



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2011ko ABENDUAREN 26an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO EZ-OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2011ko abenduare 26an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, eguerdiko 13.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Karlos Irazu Muñoa
Jon Tejeria Otermin
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea
Imanol Aranzabal Lasa
Aritz Usandizaga Larrañaga.

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...


Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ekipamendu publiko baten lerrokaduraren zehaztea Larraulen, Xehetasun azterketa proiektuari behin betiko onespina, hala bada.**
- 2. 2012 ekitaldirako udal ordenantza fiskalak eta udal zerbitzuak eskeintzeagatik tasa eta prezio publikoen ordenantzaren behin betiko onespina, hala bada**

.../...

LEHENENGO PUNTUA

**EKIPAMENDU PUBLIKO BATEN LERROKADURAREN ZEHAZTEA
LARRAULEN, XEHETASUN AZTERKETA PROIEKTUARI BEHIN BETIKO
ONESPENA, HALA BADA**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik Larraulgo Udalak eskaturik, Eba Erkizia Brion arkitektoak idatzi duela Ekipamendu publiko baten lerrokaduraren zehaztea Larraulen, Xehetasun azterketa proiektua, 2011ko azaroaren 15ean Udalbatzak onestua.

Ikusirik Larraulen ekipamendu publiko baten lerrokaduraren zehaztea, Xehetasun azterketa proiektua jendaurrean jarri zela 20 lanegunez, 2011ko azaroaren 21eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2011ko azaroaren 18an El Diario Vasco-n argitaratuz, interesatuek alegazioak tartekatzeko.

Ikusirik, aipaturiko proiektua jendaurrean izandako epean inolako alegaziorik egon ez dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udalak sustatutako eta Eba Erkizia Brion arkitektoak idatzitako Ekipamendu publiko baten lerrokaduraren zehaztea Larraulen Xehetasun azterketa proiektuari behin betiko onespena ematea.

BIGARRENA: Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

BIGARRENGO PUNTUA

2012 EKITALDIRAKO UDAL ORDENANTZA FISKALAK ETA UDAL ZERBITZUAK ESKEINTZEAGATIK TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZAREN BEHIN BETIKO ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2011ko azaroaren 10ean egindako Udalbatzarrean, 2012 ekitaldirako Udal Ordenantza fiskalak eta Udal zerbitzuak eskaintzeagatik tasa eta prezio publikoen ordenantzaren hasierako onespena eman zitzaiola.

Ikusirik 2011ko azaroaren 16ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aipaturiko iragarkia jendaurrean jarri zela 30 lanegunez.

Ikusirik aipaturiko jendaurreko epean, alegazio bat egon dela, konkretuki, Gipuzkoa Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkartearna (GZZ), non Autokonpostaje bidez hondakin organikoa autokudeatzen duten herritarrei, hiri hondakinen tasan % 40ko hobaria ezartzeko eskatzen dutena.

Gai azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENA: Gipuzkoako Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkarateak eginiko alegazioa ez onartzea.

BIGARRENA: 2011ko azaroaren 10ean egindako Udalbatzarrean, hasierako onespina eman zitzaion 2012 ekitaldirako Udal Ordenantza fiskalak eta Udal zerbitzuak eskaintzeagatik tasa eta prezio publikoen ordenantzari behin betiko onespina ematea.

HIRUGARRENA: Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 13.45 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA